



BAIGORRIKO HERRIA

COMMUNE DE
SAINT ETIENNE DE BAIGORRY

2021eko azaroaren 17ko herriko kontseiluaren bilkuraren bilduma

Hautetsiei igorri gutunaren deialdia : 2021eko azaroaren 10ean

Usaiko herriko kontseiluko hilabeteko bilkura, Jean-Michel COSCARAT auzapez jaunaren lehendakaritzapean

Herriko kontseilu kopurua : 15

Hor ziren (11) : Jean-Michel Coscarat, Annie Juantorena, Marie-Agnès Haristoy, Maddalen Dupuy, Isabelle Arangoits, Antton Curutcharry, Daniel Ithurburua, Betti Olçomendy, Sandrine Mercapide, Frantxoa Mocho

Barkatuak eta poderea emana (4) :

- Jean-Paul Bibes-ek Maddalen Dupuy-ri,
- Bernadette Mousques-el Daniel Ithurburua-ri
- Hélène Deguiraud-k Antton Curutcharry-ri,
- Betti Bidart-ek Jean Michel Coscarat-i

Absents excusés :

Bilkuraren idazkaria : Antton CURUTCHARRY
Cécile Larue, idazkari nagusiaren laguntzarekin.

Mintzagaiak :

N° ordre	Mintzagaiak	Bozkak
0	2021ko urriaren 8ko kontseiluko bilkuraren bildumaren onarpena	Aho batez onartua
1	Herri elkargoak plantan ezarri sartzeko errazbideeri buruzko dirulaguntzak : hitzarmenaren izenpetzearen onarpena Obra desberdinak eginak izan dira herriko eraikuntzetan, ibiltzeko zailtasunetan diren pertsonentzat (herriko bideseinaleak, PMR tokiak, PMR ibilbidea baratze publikoan, trinketeko eskailerra...). Orotara egin izan diren gastuak : 16 021,77 €koak dira (BEZ-a gabe). Gastu hauei buruzko herri elkargogo dirulaguntzaren eskuratzeko, hitzarmen baten izenpetzea.	Aho batez onartua

2	<p>Herriko argien mantentze eta elektrika hedaduaren debisen onarpena</p> <p>BIDART gunean Postaren gunean Geltokiko gunean Kortaldeko gunean – 2 gauargi Eiheraldeko gunean Elektrika hedadura</p>	Aho batez onartua
3	<p>POCTEFA-ko misio kargudunaren gastuen partehartzea : treina, hegazkin, hotela...</p> <p>Auzapezak sustaturik eta bere lanarentzat (artxikoen kontsulta...), langileak aintzintatu fakturen ordainketak</p>	Aho batez onartua
4	<p>Hiru langileren kontratatzea biztanle kondaketarentzat</p> <p>Ondoko biztanle kondaketa iraganen da 2022ko urtarrilaren 20etik otsailaren 19ra. Karia hortara, Carmen Bascans herriko langilearekin batera, beste hiru langile kontratatuko dira.</p>	Aho batez onartua
5	<p>« PIG HABITAT » hitzarmenaren gehigarri baten izenpetzea</p> <p>PIG HABITAT dispositibokari, herriak eta herri elkargoak hitzarmen bat izenpetu zuten arlo hauen inguruan : Berriztatze energetikoa, baldintza onetan bizitzeko bizilekua, alokairu apaleko bizitegiak, jende adinetako bizitegiak.</p> <p>Dirulaguntza partaidetza 2023ko urria arte arraberritzea proposatua da. Herriko etxearen diru parte hartzea : ANAH egituraren hautagarri gastuen %-2,5-a.</p> <p>Herriko etxeko dirulaguntza gorena txosten bakoitx : 1 500 €</p>	Aho batez onartua
6	<p>Aurrekontu egokitzea</p> <p>« Ekipamendu numerikoa » postua herriko konduetan gehitzen da, herriko eskoleek dirulaguntza eskaera bati dei egin ondoan.</p>	Aho batez onartua
7	<p>AMAP elkartearen dirulaguntza eskaera</p> <p>Herriko kontseiluak 250 €ko dirulaguntza elkarteari emaita proposatzen du.</p>	Aho batez onartua